

# ETORKINTZA ELKARGOAREN 40. URTEURRENA HELBURUEI ETA EKINTZEI BURUZKO INFORMAZIO-TESTUA

40 urtez pertsoneri laguntzen

Etorkintza Elkargoa irabazi asmorik gabeko erakunde pribatua da, onura publikokoa eta interes sozialekoa. 1984tik, adikzioak dituzten bazterkeria-egoeran edo egoteko arriskuan dauden pertsoneri arreta eskaintzen diegu.

Hasieratik, Elkargo honen helburua izan zen drogen kontsumoak eta jokoak eragindako egoerei erantzuna emango zion proiektu bat sortzea, ekarpen orokor eta profesionalen bidez, eta prebentzio eta laguntza-zerbitzuen bitartez. Batez ere, heroinaren kontsumoak eta horrek GIB birusaren kutsadura areagotzeak gizartean izandako eragina murriztea izan zuen helburu.

Urte hauetan zehar, gure jardun- arloak zabaldu ditugu gizarte- premia berrietara egokitzeko. Gauzak horrela, prebentzio, laguntza eta gizarteratze zerbitzuak eskaintzen ditugu, bai adikzioen esparruan, bai osasun mentalean eta gizarte-kalteberatasunean ere.

**Gure esku-hartzeetan eta estrategietan hiru elementu kontuan hartu ditugu beti:**

- Beharizan sozialei, horien bilakaerari eta aldaketei adi egotea.
- Arazoa saihesteko ezinbestekoa den ikuspegi komunitarioa, gizartearen inplikazioa eta parte- hartzea biltzen dituena.
- Administrazioekin eta entitate pribatuekin lankidetzan aritzeko borondatea.

40 urte horietan zehar egin dugun lanari esker, zenbait ziurtagiri eta aitorten jaso ditugu: Sabino Arana Fundazioaren saria, BFAREN Utopia saria, CREFATEN Sofia Erregina, Euskaliten zenbait aitorten, BBK eta Deiaren Elkartasun sariak, EJREN «Elkar Eginez» aitortpena edo UNADek Etorkintza Elkargoaren 40 urteei eginiko aitortpena.

**Elkarlana, lan profesionala eta konprometitua**

Diziplina anitzeko 77 pertsonen osatutako taldea gara, Patronatuko Batzordeak, talde profesional batek eta boluntario -talde batek osatua. Gure lana modu integral eta transbertsalean egiten dugu, genero ikuspegia eta inklusioa mantenduz eta hainbat zentro, erakunde eta entitateekin lankidetzan.

**Gure balioek agerian uzten dute gure izaera:**

- Pertsonengan (bezeroengan, erabiltzaileengan, pazienteengan) jartzen dugu arreta, haien beharrei erantzunez.
- Profesionaltasunez eta modu koordinatuan lan egiten dugu.
- Sormena erabiltzen dugu erantzun berritzaileak eta jasangarriak eskaintzeko.
- Eta hori guztia modu solidarioan eta gizartearekin konprometituta.

**Horregatik, «OSPAKIZUN HONEN HELBURUAK» dira:**

1. Mendekotasunak dituzten pertsonen beharrak ezagutzera ematea, beren eskubideen babesean aurrera egiteko.
2. Hausnartzea eta estigmak haustea.
3. Eztabaida soziala eragitea eta hobetzeko proposamenak biltzea.
4. Ospakizunaren partaide egitea interes talde ezberdinak: Erabiltzaileak eta pazienteak, bezero finantzatzaileak, aliantzak, hornitzaileak, profesionalak eta pertsona boluntarioak eta herritarrak oro har.
5. Mendekotasunak dituzten pertsonen esku hartzeetan instituzioek, entitateek eta enpresek eman duten laguntza aitortzea.
6. Entitateko langileei aitortzea profesionaltasuna eta ahalegin handia ekarri dituztela urte horietan.

## IKUSI BIDEOA

### GARATZEN ARI DIREN EKINTZAK

**Erakusketa ibiltaria**

Mendekotasunen arazoan eta 40 urte horietan zehar Elkargoak egin duen ibilbidearen inguruko erakusketa ibiltaria. Ikusizko erakustaldia, herritarren artean mendekotasunei buruzko hausnarketa pizteko funtsezko helburua duena.

Erakusketa 10 egunean behin mugituko da Bizkaiko herri batzuen artean: Bilbo, Getxo, Barakaldo, Gernika eta Balmaseda; hauek dira egun zehatzak:

- Bilbo – Arriaga plaza (urriaren 3tik 13ra)
- Getxo – Areetako Xake plaza (urriaren 17tik 27ra)
- Barakaldo – Herriko plaza (azaroaren 5etik 15era)
- Gernika – Fuente de Mercurio (azaroaren 19tik 29ra)
- Balmaseda – San Severino plaza (urtarrilaren 21etik 31ra)

### Elkarrizketa zikloa

Elkarrizketa bakoitzaren helburua da gogoeta erraztea eta eztabaida soziala eragitea, bai eta elkarrizketa eta parte-hartzea sustatzea, gai bakoitzerako mezu nagusiak hedatzea eta aukerak eta hobekuntza-arloak hautematea ere.

Elkarrizketak hainbat gairi buruzkoak izango dira: mendekotasunak eta beren atzean dagoen estigma; emakumeak eta indarkeria matxista; pertsona migratzaileak eta eskubideak; gazteak eta beren nortasunak; eta etika eta adimen artifiziala.

**Hauek dira tokiak eta egunak:**

- Emakumeak eta indarkeria matxista. BBK Kuna. 2024ko abenduak 12-17:00
- Migratzaileak eta Zuzenbidea. Bizkaia Aretoa. 2025eko urtarrila
- Gazteak eta Nortasunak. 2025eko otsaila
- Etika eta adimen artifiziala. Deustuko Unibertsitatea. 2025eko martxoa
- Mendekotasunak eta estigma. Bizkaia Aretoa. 2025eko martxoa

### Kontzertu klasikoa

Etorkintzaren 40. urteurrenaren barruan kontzertu bat barne hartu da ere bai, eta azaroaren 14an izango da Bilboko Sozietate Filarmonikoan. Areto hori hiribilduko erdialdean dago, 800 pertsona baino gehiago har ditzake eta Europa osoan soinurik onenetakoa du.

Kontzertua egingo du ESAS sareak, euskal artistak, sortzaileak eta kulturaren eta musikaren sektoreko profesionalak biltzen dituenak. Kulturaren esparruan erreferenteak diren emakumeak ezagutzera ematearen alde jotzen du sareak, batez ere, musika klasikoaren profesionalak. Gainera, ESASEk zenbait ad hoc pieza sortu ditu ekitaldirako. Sarrerekin bildutakoa Etorkintzaren hainbat proiektu finantzatzeko erabili da.

Ekitaldira ez badoaz ere, ekarpen bat egin nahi dutenentzako 0 ilara sortuko da, eta, horri esker, entitate parte-hartzaileen sozietatea eta erantzukizun sozial korporatiboa hobetuko dira.

SARRERAKEROSI

### Topagunea

40 urte horietan zehar, pertsona asko ahalegindu dira Etorkintza Fundazioaren eginkizuna babesteko eta bultzatzeko. Horregatik, entitatea 40. urteurrenaz baliatuko da Elkargoaren profesionalak, pertsona boluntarioak eta patronatua biltzeko, pertsona guztien lankidetzak eskertzeko, esperientziak partekatzea suspertzeko eta etorkizunari pozez begiratzeko.

### Gala-afaria eta aitortpenak

Ekitaldi hori martxoaren 27an egingo da, Euskalduna Jauregian, eta enpresa-sarea Etorkintzaren xedearekin lotzea helburua du. Aukera ekarriko du ere bai 40 urte horietan zehar Etorkintzarekin konpromiso bikaina erakutsi dutenei omenaldia egiteko, eta horixe izango da urteurrenaren ospakizunen bukaera.